



AYUNTAMIENTO  
del VALLE de EGÜÉS  
EGUESIBARKO  
UDALA

**“Joakin Lizarraga Elkanokoa”  
Euskarazko Narrazio Laburren  
Saria 2017**

**Lehen Hezkuntzako 5. maila: 1. saria**

**EMMAREN TESTUA**

Aroa Mina Rodríguez

Bazen behin... bazen behin... aagh, ez dut ideiarik —esaten zuen Emmak etengabe. Eskolan irakasleak testu bat idaztea esan baitzion. Emmak 11 urte zituen eta... zera, pixka bat eroa (modu onean) zegoen, zentzugabekeria asko esaten zituelako.

Emma, afaria prest dago! Brokolia daukazu —deitu zion amak.  
BROKOLIA! Lasai ama gaur ez dut afalduko —erantzun zion Emmak.

Hori eta gero Emmak erabaki zuen artearekin erlazionatutako azalpen-testua egingo zeula. Hurrengo egunean, Madrilen zegoela aprobetxatzen, Pradoko museora joan zen. Pradora sartu zenean jakin zuen zer koadroren azalpen-testua egin zuen: “El jardín de las delicias (Bosco)”. Gero testua idatzi zuen. Hemen bere “testua”:

“Jardín de las delicias. Boscok egin zuen eta koadro bat da oso famatua. Koadroak 500 urte inguru ditu”. Bai, hori izan zen Emmaren testua, lerro eta erdikoa. Hurrengo egunean glasean, hau esan zion irakasleak:

—Baina Emma! Batzuetan ez dakit Nola egiten dituzun gauzak hain gaizki, honen ez dauka ezta izenbururik ere.

—Ba... zera... brokolia nuen afaltzeko eta... Zuk dakizu zer tortura den gauza berde hori jatea! — Erantzun zion Emmak.

Azkenean, Emmak ez zuen nota gainditu, baina ez zitzaion inporta. Etxera itzuli eta sartzean...

—Emma, brokolia duzu afaltzeko —esan zion amak.

Emmari ia-ia bihotzekoa eman zion.